

BEZERO KANALAK

Dakizuenez, gure bezero espezifiko batzuk zailtasunak dituzte, beste batzuk aldiz bezero orokorrak dira eta hor sartzen dira, denda onlinean erosten dutenak eta asteburu batzuetan parte hartzen dutenak. Baina hori ez da komunikaziorako arazoa. Hemen, azpian, hobeto azalduko dizuegu nola komunikatzen garen haiekin eta nola lortzen dugun gure informazioa haiengana iristea.

Hasieran informazio orokorra gmail bidez bidaliko dugu, horretarako gure webgunean sartu eta gmail-a edo mugikor zenbakia hartuko dute, batzuk telefonoz deituko dute eta beste batzuk zuzenean gmail-era idatziko dute.



Norbaitek gurekin parte hartu nahi badu, telefonoz deituko digute apuntatzeko eta guk gmaila eskatuko diegu. Lehengo urteetan gurekin parte hartu badu, ez da beharrezkoa telefonotik deitzea, guk automatikoki gmailaz bidaliko diegu informazioa, aldaketa bat egon ezgero. Gmailetik bidalitako informazioa sakonagoa da, web-an agertzen dena baino.




Ondoren, behin apuntatuta, whatsapp bidez komunikatuko gara beraiekin.+34 696 693 433 (gure telefonoa)

Ordainketak eta informazio garrantzitsua gmail bidez bidaliko ditugu.



Kurtsoa bukatzean, ekainean, hurrengo urterako lekuak aterako dira, pixkanaka antolatzen joan gaitzen. Hori jendearengana iristeko, instagramean link bat jartzen dugu eta hortik gure webgunera sartzeko aukera dute. Aldiz, gure webgunea ezagutzen duten pertsonak hortik emango dute izena hurrengo kurtsorako.



Instagram ez dutenentzat, gure empresari buruzko informazioa duten kartelak eta txartelak ditugu, Donostiko kaleetan barrena kartelak itsatsiko ditugu eta zenbait dendekin hitz egingo dugu gure txartelak banatu ditzaten.

Gure bezeroak denda onlinaz jabetzeko, gure kanalen bidez adieraziko diegu. Lehen esan dugun bezala, TikTok eta Instragram kontuak ditugu eta hortik, link baten bidez denda onlinera joateko aukera izango dute.

Dendan edozein bezeroak erosi dezake eta edozein tailako produktuak daude; Kamisetak, Toaila, Kantinplorak, Bufanda + Tronpeta, Galtzak, Sudadera, Boligrafoa, Galtzerdiak, Motxila, Riñonera, Pultsera, Agenda, Poltsa, Jertsea, Giltzen Ilaberoa.

